

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

“Deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzak emateko 2025eko deialdi publikoa eta oinarriak”

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko uztailaren 4an egindako bilkuran onetsi zituen deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzak emateko 2025eko deialdi publikoa eta oinarriak.

Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten entitate eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Erabaki honen kontra, administrazio-bidea ahitzen baitu, zuzenean aurkeztu daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldeztu aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu daitezke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze errekurtsoa espresuki edo presuntziorik ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren oinarri arautzaileen publikotasunari buruz araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

Arau-esparrua

Deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzetarako deialdi hau, beraz, bera arautzen duten oinarrien eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren pean (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia; 2023ko urriaren 1ean sartu zen indarrean) egongo da. Ordenantza horretan aurreikusi gabekoetan, 38/2003 Legea (azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra) eta haren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia) aplikatuko dira, bai eta aplikatzekoak diren gainerako arauak ere.

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak

Laguntza hauek indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan (2025-2027) aurreikusten dira, zeina 2025eko urtarrilaren 17an onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek, eta 2025eko otsailaren 21ean aldatu.

Plan horren arabera, laguntza hauek “Enpresak sustatzeko laguntzak” (08_04_v02 fitxa) dirulaguntza-ildoaren barruan daude, eta honako hau dute xede: Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresen sorrera eta garapena bultzatzea, eta ekonomiaren sustapena eta lehiakortasunaren hobekuntza babestu eta bultzatzea.

2. Oinarria. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Vitoria-Gasteizko enpresek deskarbonizazio-jarduketak egiteko dirulaguntzak norgehiagoka bidezko konkurrentzia bidez emateko baldintzak ezartzea.

Dirulaguntza-ildo honek Udalaren ekonomia zirkularreko proiektuetarako laguntza osatzen du. Laguntza horretan, diruz laguntzeko modukotzat jotzen dira materialetan eta produktuetan sartutako energiari lotutako deskarbonizazio-jarduketak, hala nola lehengai birjinen ordez bi-garren mailako lehengaiak erabiltzea edo industria-hondakinak balorizatzea, esate baterako.

Laguntza honetan, hiri-misioarekin eta 2030erako neutraltasun klimatikorako ibilbide-orriarekin eta Vitoria-Gasteiz klima-aldaketara egokitzeko misioarekin bat datozen jarduketak sartzen dira.

Dirulaguntza hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta norgehiagoka bidezko konkurrentziaren bidez emango dira, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 19.1 artikuluekin eta III. kapituluarekin bat etorritik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

3. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

Ekintzak: diruz lagun daitezkeen ekintzak lau ardatz handitan biltzen dira: energia-kontsumoa murriztea, karbono-azterna kudeatzea eta murriztea, energia-trantsizioa —iturri fosilak energia berriztagarriekin ordezkatuz— eta NOSak (Naturan Oinarritutako Soluzioak) ezartzea klima-aldaketara egokitzen eta hura arintzen laguntzeko.

Neurri horien helburua ez da soilik berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, baita ere energia-efizientzia hobetzea, berrikuntza teknologikoa bultzatzea eta harekin lotutako ingurumen- eta gizarte-onurak sustatzea, hartara Vitoria-Gasteizko industria-sarearen lehiakortasunari eta jasangarritasunari laguntzeko eta, ondorioz, karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioa bultzatzeko.

Zehazki, jarduera hauek jaso ahal izango dute laguntza:

3. A. Kontsumoa murriztea:

Multzo honetan, industria-jarduerari lotutako energia-kontsumoa murriztea ahalbidetzen duten jarduketak sartzen dira, dela ekoizpen-prozesuak hobetuz, dela ekipoak efizienteagoak diren beste batzuekin ordeztuz, dela energia-kudeaketa optimizatuz edo teknikariak prestatuz.

Neurri horiek emisioak murrizten eta enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen dute.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

3. A.1. Makineria ordeztzea.

Makinak ekipo efizienteagoen bidez berritzea edo egokitzea, ekoizpen-prozesuetako energia-kontsumoa optimizatuz.

3. A.2 Beroa berreskuratzeko sistemak.

Hondar-beroa berrerabiltzeko aprobetxatzen duten teknologiak ezartzea —dela bero hori enpresakoa edo hurbileko enpresetakoa—, hondar-beroaren iturriaren hurbiltasuna eta eskari termikoa aprobetxatuz.

3. A.3 Eraikinaren egokitzapen termikoa.

Ingurutzailen termikoa hobetzea eta teknologia jasangarriak erabiltzea, erosotasun-baldintza egokiak lortzeko, ahalik eta energia-gastu txikienarekin.

3. A.4 Optimizazio energetikoko sistemak.

Teknologia aurreratuak ezartzea denbora errealean monitorizatzeko, energia-kontsumoak aurreikusteko eta digitalizatzeko, hartara energiaren kudeaketa eraginkorra eta moldagarria egin ahal izateko.

3. A.5 Energia-kudeaketa ISO 50001.

Energia-kudeaketako sistema ezartzea enpresan, ISO 50001 arauaren arabera. Arau horrek energia-jardunaren etengabeko hobekuntza eta kostuen murrizketa sustatzen ditu.

3. A.6 Langileen prestakuntza teknikoa.

Teknikariak trebatzea energia-efizientzian, teknologia berriein lan egiten eta energia-kudeaketan, ezarritako sistemak mantentzeko eta optimizatzeko barne-gaitasunak indartuz.

3. B. Karbono-aztarna.

Bloke honetan, industria-jarduerari lotutako zuzeneko eta zeharkako emisioak identifikatzeko eta murrizteko jarduketak sartzen dira.

Alde batetik, karbono-aztarnaren 3. mailaren kalkulua egin dadin laguntzen da, eta aukera ematen du inpaktu klimatikoa balio-kate osoan zehar ezagutzeko. Beste alde batetik, klimatizazio- eta hozte-instalazioetan erabiltzen diren gas fluordunak ezabatzea edo ordezteak sustatzen da, berotze globala eragiteko potentzial handia duten zuzeneko emisioak murrizteko.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

3. B.1 Hirugarren (3) mailako karbono-aztarnaren kalkulua.

Diruz laguntzen da enpresaren balio-kateari lotutako zeharkako emisioen kalkulua (3. maila), hala nola garraioa, lehengaiak edo hondakinen kudeaketa. Neurri horri esker, zuzeneko kontsumotik harago ingurumena hobetzeko aukerak identifikatu daitezke. Kalkuluak murrizketa-estrategiak diseinatzen eta erabaki jasangarriak hartzen laguntzen du. Halaber, kudeaketarako beharrezkoak diren tresnak eta prestakuntza teknikoa eskuratzen laguntzen da.

3. B.2 Gas fluordunak ezabatzea edo haien ordeztasun alternatiba jasangarriagoak ezartzea

Berotze globala eragiteko potentzial handia duten gas hozgarrien erabilera murriztea (HFCak, adibidez), inpaktu klimatiko txikia edo batere inpakturik ez duten gai alternatiboak erabiltzen dituzten teknologiak sustatuz, hala nola hozgarri naturalak edo zuzeneko hozgarriak behar ez duten sistemak.

3. C Trantsizio energetikoa.

Bloke honetan tokiko industrian erregai fosilen erabilera murriztera bideratutako jarduketak sartzen dira, energia-iturri berriztagarrien aldeko apustua eginez.

Energia garbiak instalatzea, ekipo kutsatzaileak ordezteak, prozesu termiko industrialak hobetzea eta instalazioetan eta mugikortasunean konponbide jasangarriak sustatzea bultzatzen da.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

3. C.1 Amiantodun estalkia kentzea.

Dirulaguntza emango da amiantodun estalkiak segurtasunez kentzeko, eguzki-energia foto-voltaikoko sistemak instalatu ahal izateko, eta industria-instalazioen jasangarritasuna eta segurtasuna hobetzeko.

3. C.2 Klimatizazio-ekipoak ordeztzea.

Erregai fosilekin funtzionatzen duten klimatizazio-ekipoen ordeztzea energia berriztagarrietan oinarritutako aukerak jartzeko laguntza, berotegi-efektuko gasen zuzeneko emisioak murriztuz.

3. C.3 Birkarga-puntuak dituzten panel fotovoltaikodun aparkalekuak instalatzea.

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailu (MPI) elektrikoentzako eta bizikleta elektrikoentzako birkarga-puntuak dituzten panel fotovoltaikodun aparkalekuen instalazioa sustatzea, industria-ingurunean mugikortasun jasangarria sustatuz.

3. C.4 Energia berriztagarriak prozesu termikoetan integratzea.

Industriako behar termikoei erantzuteko energia berriztagarriak txerta daitezkeen sustatzea, erregai fosilak ordeztuz eta energia-efizientzia hobetuz. Adibidez:

- Eguzki-energia termikoan oinarritutako berokuntza-sistemak, ur beroa edo lurrina ekoizteko.
- Labeetan, galdaretan edo lehortze-prozesuetan beroa sortzeko biomasa eta biogasa.
- Behar termikoak betetzeko iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten beste sistema berritzaile batzuk.

3. D. NOSak (naturan oinarritutako soluzioak) ezartzea.

Bloke hontean, naturan oinarritutako soluzioak ezartzeko eta mantentzeko dirulaguntzak ematen dira. Soluzio horiek, klima-aldaketara egokitzen eta hura arintzen laguntzeaz gain, onura ekosistemiko eta sozial garrantzitsuak sortzen dituzte. Lehentasuna ematen zaie biodibertsitateari mesede egiten dioten jarduketei, kudeaketa hidrikoa hobetzen dutenei eta instalazioen efizientzia termikoa handitzen dutenei, ezartzeko alde aurreko bideragarritasun-azterlanak barne.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

3. D.1 Landarezko estalkiak ezartzea.

Industria-eraikinen gainean estalki berdeak ezartzea, isolamendu termikoa hobetzeko, euri-urak kudeatzeko eta biodibertsitateari laguntzeko. Instalatu eta hurrengo 3 urteetako mantentze-kostuak ere diruz lagunduko dira.

3. D.2 DJSU bidezko aparkaleku iragazkorak instalatzea.

Zoladura iragazkorak eta drainatze jasangarriko sistema urbanoak dituzten aparkalekuak egitea, ura iragaztea errazteko eta inpaktu hidrikoa murrizteko. Azpiegitura instalatu eta hurrengo 3 urteetako mantentze-kostuak ere diruz lagunduko dira.

3. D.3 Itxitura naturalak instalatzea.

Landare-elementuak txertatzea, hala nola heskaiak, pantaila berdeak, gabioiak edo landare-hesiak, espazioak mugatzeko, mikroklima hobetzeko eta konektagarritasun ekologikoa errazteko. Instalatu eta hurrengo 3 urteetako mantentze-kostuak ere diruz lagunduko dira.

3. D.4 NOSetarako alde aurreko bideragarritasun-azterlanak.

Industria-inguruneetan naturan oinarritutako soluzioak ezartzearen bideragarritasuna ebaluatzen azterlan teknikoak finantzatzea, ingurumen-inpaktuari, kostuei eta onura ekosistemikoei buruzko azterketak barne.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

2025eko urtarrilaren 1etik 2026eko uztailaren 31ra bitarteko aldiari (bi egun horiek barne) dagozkion fakturak joko dira dirulaguntzaren xede izan daitezkeen gastutzat, zalantzarik gabe egokitzen zaizkiolarik diruz lagundutako jardueraren izaerari, eta kontzeptu hauetakoren bati dagozkiolarik:

- Makinak eta ekipoak erostea edo egokitzea. Alokairu- edo leasing-kostuak sartzen dira (diruz lagundu daitezkeen aldiari dagozkionak).
- Jarduketaren deskarbonizazio-xederako sistemak.
- Kanpoko aholkularitzen kostuak (laguntza teknikoa, aholkularitza...).
- Deskarbonizazio-jarduketa egiteko ezinbestekoak diren obra-/instalazio-kostuak.

Soilik 3. mailako karbono-aztarnaren kalkuluaren kasuan: enpresa eskatzailearen langile-kostuak, 3. mailako KA (karbono-aztarna) kalkulatzera bideratuta dauden neurrian, halakotzat langileen zuzeneko kostuak soilik hartuta. Memorian, kostu aurreikusi bat adieraziko da, eta amaierako justifikazioan zehaztuko dira proiektuari egotzitako orduak eta kostu osoa (eurotan): orduko kostua bider egotzitako orduak. Nolanahi ere, ordu bakoitzeko gehieneko kostua ez da 70,00 eurotik gorakoa izango (Gizarte Segurantza eta lan-kostuak barne).

Enpresa eta urte bakoitzeko dosier bakarra izapidetuko da.

2026ko irailaren 15a baino lehen behar bezala justifikatuta dauden ordainketak bakarrik lagundu ahalko dira diruz.

Aurkeztutako proiektuek oinarrien arabera diruz lagundu daitezkeen gutxieneko inbertsioa –6.000,00 euro (BEZik gabe)– izan beharko dute.

4. oinarria. Ez dira diruz lagunduko

Oro har, honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat joko:

- Co2-a bahitzeko teknologiak.
- Proiektuak ezartzeko enpresak bere gain hartutako formazio-gastuak.
- Aktibo finkoan egindako inbertsio hauek: aktibo ukiezinak (jabetza industrial eta software informatikoa izan ezik), eskualdatze-eskubideak, frankizia-eskubideak, lursailak, apaingarriak, garraio-elementuak, telebista-gailuak, telefono-terminalak eta antzekoak.
- Lehendik ere laguntza eman zaien bigarren eskuko makinak eta ekipoak erostea.
- Enpresaren ohiko funtzionamendutik sortutako gastuak, edo etengabea edo aldizkakoa den jarduera bati dagozkionak: bulegoko materiala, mantentze-lanak, piezak konpondu edo ordeztzea, tresnak berritzea, promozio-ekitaldiak, bidaiak, publizitatea, otorduak, hornikuntzak, alokairuak eta antzekoak.
- Patenteak, erabilgarritasun-modeloak eta diseinu industrialak berritu edo aldatzeko gastuak.
- Adierazitako jarduerari dagozkien zerga edota tasak, errekarquak eta administrazio-zehapenak.
- Ibilgetu materiala leasingen bidez eskuratuz gero, kuotak baino ez dira lagunduko diruz; ez interesak, ez gastuak, ez dira diruz lagunduko.
- Diruz lagundu daitezkeen gastuen atalean sartuta ez dauden gastu guztiak.

5. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, eta, hala bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere bai, eta, betiere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

6. oinarria. Enpresa onuraduna izateko betekizunak

Merkataritza-jardueraren bat duten enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, haien izaera juridikoa edozein delarik ere, betiere betekizun hauek betetzen badituzte:

a. Egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea edo dirulaguntza jaso lezaketen jarduerak zuzenean Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta dagoen zentro batean garatzea.

b. Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik balio osoz eratuta egotea.

c. Eskabidea tramitatzeko prozesu osoan (aurkeztean, esleitzean, obligazioa onartzean eta ordaintzean) EJZn izena emanda egotea.

d. Enpresa txiki edo ertaina izateko betekizunak betetzea eskabidea aurkeztean den unean, hau da, 250 enplegatu baino gutxiago izatea, eta urteko fakturazioa 50 milioi eurotik beherakoa izatea, edo balantze orokorra 43 milioi eurotik beherakoa.

e. Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresekin loturarik ez izatea, edo haiek partaidetza nagusia ez izatea enpresan.

f. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.

g. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar). Kanpoan geratzen dira, halaber, jarduera nagusizat energia elektrikoa edo termikoa sortzea edo banatzea duten enpresak, beste enpresa edo erakunde batzuei energia aurrezteko eta efizientzia lortzeko irtenbideak eskaintzea jarduera nagusizat duten energia-zerbitzueta enpresak, eta armak eta material militarra fabrikatzen, merkaturatzen edo finantzatzen diharduten enpresak.

h. Laguntza jasotzeko ezinbesteko baldintza gisa, 3A1, 3A2 eta 3A3 ataletan jasotako jarduketan, enpresaren guztizko energia-kontsumoa (kWh) gutxienez ehuneko 10 murriztea justifikatu beharko da, 2024ko ekitaldian erregistratutakoaren aldean. Murrizketa hori enpresa hornitzaileak emandako dokumentu baten bidez egiaztatu beharko da. Dokumentu horrek argi, zehatz eta kuantifikatzeko moduan justifikatu beharko du diruz lagundutako neurria ezarri ondorako aurreikusitako energia-aurrezpena.

i. Laguntza jaso ahal izateko ezinbesteko baldintza gisa, 3C1 atalean aurreikusitako jarduketan, enpresak onetsitako aurrekontu bat aurkeztu beharko da, amianto kentzeko estalkian instalatu nahi den instalazio fotovoltaiakoari buruzkoa.

7. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Udal aurrekontuetako "Enpresentzako laguntzak, deskarbonizazioa eta jasangarritasuna" 2025/08.21.0821.4331.47142 partidaren kontura finantzatzeko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak. Partida horren zuzkidura 400.000,00 eurokoa da.

Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 58. artikuluan ezarritakoaren ildotik, aurrekontu-zuzkidura hori handitzeko modua izango da, organo eskudunaren erabaki baten bitartez, baldin eta udal sail horrek kudeatutako dirulaguntza-partidetan (guztiak kontuan hartuta) krediturik badago. Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan, kreditu erabilgarria badagoelako deklarazioa egin beharko da, eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan (deialdia argitara eman zen bitarteko berberetan).

8. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabide batzuekin, salbu eta Vitoria-Gasteizko Udalak berak kontzeptu berengatik emandako bestelako laguntzekin, azken kasu horretan bateraezinak izango baitira.

Nolanahi ere, eskuratzen diren dirulaguntzen/laguntzen baturak ezingo du gainditu dena delako kontzeptuaren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza edo baliabiderekin batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

9. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea eta bideak

9.1. Eskabideak aurkezteko epea oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean hasiko da, aldez aurretik Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuta, eta 2025eko urriaren 15ean bukatuko.

9.2. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

— Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko dira, erregistro elektronikoen bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digital bat erabili beharko da.

— Aurrez aurre:

— Udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30-14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

— Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (HLB), betiere hitzordua eskatuta 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean.

Aurrez aurre arreta emateko gunean, dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, aurkeztutako eskabideak arin eta eraginkortasunez ebazteko oharrak jaso ahal izateko.

9.3. Interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

9.4. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

10. Oinarria. Nahitaezko Dokumentuak

10.1. Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza eskabideei:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitorpena: I. eranskina.
- Inbertsio-taula: II. eranskina.
- Proiektuari buruzko memoria, honako atal hauek jasoko dituenak:
 - Egindako jardueren deskribapen zehatza.
 - Ezarritako eta/edo dirulaguntzara aurkeztutako neurrien deskribapen xehatua.
 - Ezarritako neurriekin lortu nahi diren helburuak, hala nola: energia-kontsumoa murriztea, klima-aldaketa egokitzea (enpresak uholdeen eta bero-boladen aurrean duen erantzuna hobetzea), bezeroaren betekizunak betetzea enpresaren lehiakortasuna hobetzeko edo klima-aldaketa arintzea CO₂-a xurgatzen laguntzen duten neurrien bidez.
 - Ezarri beharreko neurriak ulertzen lagunduko duen euskarri grafikoa, hala nola: makineria-ren argazkiak (bai ordeztuko dena, bai erosi berria dena), jarduketa egingo den solairu-planoak, ezarri beharreko neurrien infografiak edo simulazio grafikoak eta/edo ezarri beharreko neurriak argitzen lagunduko duen oro.
 - 3A1 Makineria ordezte, 3A2 Beroa berreskuratzeko sistemak eta 3A3 Eraikinaren egokitzapen termikoa ataletako neurrien kasuan, enpresa hornitzaileen dokumentazioa eskatuko da, zehatz-mehatz justifikatzeko enpresan egin beharreko jarduketak gutxienez 2024ko energia-kontsumo osoaren ehuneko 10 aurreztuko duela.
 - 3C1 ataleko (Amiantodun estalkia kentzea) neurrien kasuan, amianto-kentzearen xede den estalkian instalatu nahi den instalazio fotovoltaiakoari buruz enpresak onartutako aurrekontua eskatuko da.
 - 3B1 ataleko (karbono-aztarna kalkulatzeko) neurrien kasuan, proiektuari atxikitako langileen kostuaren justifikazioa, III. eranskinaren bidez.
 - Ibilgailu jasangarrien flota baloratzeko kasurako, enpresaren ibilgailuen inbentarioa edo ibilgailu horien alokairua egiaztatzen duen dokumentua eskatuko da.
 - Pertsona fisikoek: nortasun-agiriaren fotokopia.
 - Pertsona juridikoek:
 - IFZren kopia.
 - Enpresa eratzearen eskrituren kopia.
 - Ordezkaritza-ahalordearen kopia.
 - Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.
 - Soldatapeko langilerik izanez gero, azken hilabeteko TC2 agiria.
 - Enpresak soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo-ordainketaren ordainagiria.
 - Egitekoak diren inbertsioen aurrekontuak edo, kasua bada, fakturak.
 - Obrak egiten diren kasuan, Vitoria-Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du ea egindako obrak baduen gaitzeko titulu juridikorik, dela obra-lizentzia, lehen erabilerarako lizentzia, erantzukizunpeko adierazpena, baimena edo aginduzkoa den beste edozein.

Baldin badute, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute enpresa eskatzaileek eskabidea balioestearren:

- Erakundearen edo produktuaren ingurumen-ziurtagiria edukitzea egiaztatzen duten agiriak.
- Energia berriztagarriko instalazio bat edukitzea egiaztatzen duten agiriak.
- Enpresa eskatzaileak sinatutako kontraturako energia berriztagarriak erreserbatu izanaren agiria, CNMC Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak emana.

10.2. Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 12 e) artikuluekin bat, ofizioz egiaztatutako da eskatzaileak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean dituen, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez (kasu horretan, dagokion egiaztatzea aurkeztu behar du).

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitua Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-kontuaren koderik, enpresan bazkide diren guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

11. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.4 artikuluekin bat etorritik (2023ko uztailaren 28ko ALHAOn, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzen errekeritutako dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, horrela egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, betiere, ebazpena eman ondoren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

12. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

12.1. Dirulaguntza hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta norgehiagoka bidezko konkurrentziaren bidez emango dira, hau da, dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatutako dira, haien arteko lehentasuna ezartzearen, deialdian alde aurretik ezarritako balioespen-irizpideen arabera, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren III. kapituluarekin eta 19.1 artikuluekin bat etorritik.

12.2. Instrukzioa eta ebazpena.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Balioespen Batzorde Tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

– Batzordeburua: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

– Batzordekideak: Deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu profesional:

– EEEdo teknikariak.

– ACLIMAdo teknikariak.

– Saileko Enpresen Zerbitzuko teknikariak.

– Idazkari teknikoa: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat; ahotsa izango du, baina botorik ez.

2. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena ALHAOn argitaratuz jakinaraziko da balioespen batzorde teknikoaren osaera, hura eratu aurretik, interesdun orok errekusatzeko eskubideaz baliatzeko modua izan dezan legeak ezarritako kasu eta baldintzetan.

Balioespen-batzorde teknikoko kide izendatuek konfidentzialtasun-hitzarmen bat sinatu beharko dute, aurkeztutako eskabideen egileen jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak babesteko.

Gainera, adierazi beharko dute ez daudela Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-kausaren batean.

3. Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ostean, eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, balioespen batzorde teknikoak txosten arrazoitu bat egingo du, eta bertan zehaztuko egindako balioespenaren emaitza eta eskabideen arteko lehentasuna. Instrukzio-organismoak ebazpena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira laguntzak, ezertan eragotzi gabe horretarako ahalmena Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera.

ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratutako iragarkien bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren irizpideei jarraituz.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko erabakiak amaitu egiten du administrazio-bidea, eta erabaki horren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu berraztertze errekurtsoa espresuki edo presuntzios ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, berariazko araudiaren arabera Administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

13. oinarria. Ebazteko epea

Prozeduraren ebazpena emateko eta argitaratzeko epea sei hilabetekoa izango da gehienez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epe hori.

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsizat jo ahalko dituzte interesdunek, Administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada.

14. oinarria. Onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

—Laguntza zertarako eman zaien, horretarako baliatzea.

—Diruz lagundutako proiektua deialdira aurkeztu den moduan gauzatzea. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den proiektuan funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, aldez aurretik idatziz jakinarazi beharko zaio Vitoria-Gasteizko Udalari. Oro har, Administrazioak erantzuten ez badu, aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da. Baimen espresuaren bitartez baino ez da onartuko.

—Udalaren egiaztatze-jarduketan eta finantza-kontrolakoen mende jartzea, eta/edo Udalaren Kontu Hartzailletza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako jarduketan mende eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoen mende.

—Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea deialdi honetara aurkeztutako gastu berak finantzatzeko bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero —haien jakinarazpena jaso bezain laster—, Estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo ente publikok nahiz pribatuk emanik. Horretarako, dagokion Administrazio edo ente publikoaren ebazpen ofiziala aurkeztu behar da.

— Egokitzen jotzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahalko dizkie Vitoria-Gasteizko Udalak dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo entitateei, eskabidea behar bezala balioetsi ahal izateko.

— Laguntza-eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

— Dirulaguntza zer ekonomia-jardueran aritzeko eman den, hartan aritzea gutxienez 2 urtean, dirulaguntza ematen denetik. Adierazitako epe hori igaro aurretik jarduera eten egiten bada, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio udalari, eta emandako dirulaguntza osorik edo haren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik 2 urteko epe hori —dirulaguntza eman zen egunetik kontatuta— betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespen gisa, ez da eskatuko jaso den dirulaguntza itzultzea, baldin eta negozioa ixteko arrazoia jabearen gaixotasun larria edo heriotza bada.

— Diruz lagundutako aktiboak gutxienez bi urtez edukitzea enpresan, erosten diren egunetik (fakturan ageri den datatik).

—Vitoria-Gasteizko Udalaren aurrekontuen kontura ematen diren laguntza eta dirulaguntzetarako ezarritako betebeharrak eta baldintzak oro.

15. oinarria. Balioespen-irizpideak

Norgehiagoka bidezko konkurrentzia baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 19.1 artikuluan eta III. kapituluaren aurreikusitakoaren ildotik; horrenbestez, alderatu egingo dira aurkeztzen diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta —ezarritako dirulaguntzen gehieneko muga errespetatuta— oinarrietan ezarritako balioespen-irizpideetara ongien egokitzen diren eskabideek bakarrik jasoko dute laguntza.

Eskabideak balioesteko, diruz lagundu daitezkeen proiektu aurkeztuak alderatu egingo dira, ondoren adierazten diren balioespen-irizpideak aintzat harturik.

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
PROIEKTUARI DAGOZKIONAK (65 PUNTU ARTE)	
Proiektuaren kalitate teknikoa Idazketaren argitasuna eta ezarri beharreko neurrien xehetasun-maila balioetsiko dira; baita ezarritako neurriekin lortu nahi diren helburuen koherentzia ere	25 puntu gehienez
Industria-sinbiosia 10 puntu emango zaizkie enpresen arteko lankidetzak-jarduerak eskatzen dituzten neurriei, hala nola hondar-beroa trukatzeko, MPlen aparkaleku bat partekatzea edo ondoan dauden bi enpresaren artean itxitura-begetala egitea, besteak beste	10 puntu gehienez
Egingo diren jarduketak: 20 puntu emango zaizkie A eta D ataletako jarduketari: A. Kontsumoa murriztea eta D. Naturan oinarritutako konponbideak 15 puntu emango zaizkie B eta C ataletako jarduketari: Karbono-aztarna eta Trantsizio energetikoa Oharra: Enpresa batek jarduketa bat baino gehiago egiten baditu, 30 puntu emango zaizkio, gehienez	30 puntu gehienez

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
ENPRESARI DAGOZKIONAK (35 PUNTU GEHIENEZ)	
Ekonomia soziala Ekonomia sozialeko enpresek 5 puntu gehiago jasoko dituzte (lan-sozietateak eta kooperatibak; nolanahi ere, kanpoan geratuko dira fundazioak eta elkarteak) 2 puntu emango dira enpresaren gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloko zigilu bakoitzeko. ENACek egiaztatutako erakunde batek ziurtatutakoak edo erakunde eskudunak baliozkotutakoak izan behar dute	5 puntu
Enplegu tasa Aurkeztutako mikroenpresa eta enpresa txikiei 5 puntu gehiago emango zaizkie Oharra: enpresa ertainek 0 puntu lortuko dituzte atal honetan	5 puntu
Parekotasun irizpidea Bost puntu emango dira dira, baldin eta enpresako zuzendaritza- eta ardura-postuetan sexu bakoitzeko gutxienez ehuneko 40ko partaidetza-tasa badago	5 puntu
Ingurumen-ziurtagiria ENACek egiaztatutako erakunde batek ziurtatutako zigilu bakoitzeko puntu 1 emango zaie antolakuntzaren edo produktaren ingurumen-ziurtagiria duten enpresei	5 puntu gehienez
Karbono-aztarna 5 puntu gehiago emango zaizkie karbono-aztarna MITECO n erregistratuta duten enpresei	5 puntu
Energia berriztagarriak Gehienez 5 puntu emango zaizkie instalazioetan energia berriztagarriak erabiltzen dituzten enpresei: 2 puntu, jatorri-bermea duen energia elektriko berdea hornitzeko kontratu bat edukitzeagatik 3 puntu, energia berriztagarria sortzeko instalazio bat edukitzeagatik	5 puntu gehienez
Mugikortasuna 1. Ibilgailu jasagarrien flota. 5 puntu, gehienez, enpresaren ibilgailu-flotak honelakoak baditu: ZERO emisio-etiketa duten ibilgailuak ECO emisio-etiketa duten ibilgailuak Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak Bizikleta elektrikoak Bizikletak Enpresaren flota osoarekiko ibilgailu jasagarrien ehunekoaren arabera, puntuazio hau emango da: Enpresaren ibilgailuen ehuneko 5-40 jasagarria bada= 2 puntu Enpresaren ibilgailuen ehuneko 41-80 jasagarria bada= 4 puntu Enpresaren ibilgailuen ehuneko 81-100 jasagarria bada= 5 puntu Oharra: eskatu egingo da enpresaren ibilgailuen inbentario eguneratua edo ibilgailu horien indarreko alokairu-dokumentua 2. Autoak partekatzeako plataformarekiko kontratua 5 puntu emango dira enpresak indarrean badu ibilgailu partekatzeako (car sharing) plataforma batekin kontratua	5 puntu gehienez
Gehieneko puntuazioa, guztira	100 puntu

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.1 m) artikulua betez, berdintasun arloko eta genero-ikuspegia txertatzearen arloko ekintzak sartu dira balioespen-irizpideen artean, eta baremo osoaren ehuneko 5eko balioespena dute.

Aurkeztutako proiektuak diruz laguntzeko modukoa izateko, gutxienez 30 puntu eskuratu beharko ditu "Proiektua balioesteko irizpideak" multzoa osatzen duten alderdietan.

16. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

Norgehiagoka bidezko konkurrentzia baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa. Hortaz, alderatu egingo dira aurkeztu diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 15. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

Dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen gastuen ehuneko 65 izango da (3. oinarrian adieraziak), puntuazio handiena duten proiektuen kasuan; ehuneko 35, gutxienez 30 puntu lortu dituztenen kasuan; eta tarteko ehuneko bat, proportzio linealean, tarteko puntuazioa duten proiektuen kasuan. Nolanahi ere, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 40.000,00 eurokoa izango da.

Guztira lortutako puntuazio horren arabera ezartzen den hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua ahitu arte.

Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, alderdi hauek hartuko dira aintzat bata edo bestea lehenesteko:

- “Proiektuaren kalitate teknikoa” atalean lortutako balorazioa (15. oinarrian adieraziak)
- “Egin beharreko deskarbonizazio-jarduketak” atalaren balorazioa (15. oinarrian adieraziak).
- “Parekotasun-irizpidea” ataleko balorazioa (15. oinarrian adieraziak).

Baldin eta saldoa ez bada aski kreditu erabilgarria ahitzen duen dirulaguntzaren ordainketa egiteko, azken dirulaguntza horri aplikatuko zaio kreditu soberakina.

17. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Honela tramitatuko da proiektuak garatzeko emandako laguntzen ordainketa:

- Ehuneko 80, laguntza ematea ebatzi ondoren.
- Gainerako ehuneko 20a, 19. oinarrian (Justifikatzeko epea eta modua) adierazitako dokumentazioa jaso eta egiaztatu ondoren.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu pertsona onuradunak ez badauzka egunean zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak, edo zorduna bada, diru-itzulketa bidezkoaren ebazpena tarteko.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan funtsezko aldaketaren bat izanez gero, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, betiere hirugarren baten eskubideak kaltezen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak — Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du — 64. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

Dirulaguntza justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua garatzeko egindako jardueren eta lortutako emaitzen memoria.
- Ahal izanez gero, gauzatutako proiektuen dokumentazio grafikoa.
- Enpresan proiektuari egotzitako langileen kostuen taula, IV. eranskinaren arabera.
- Egindako gastuen justifikazioa, behar bezala egiaztatua, eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak.
- Langile-kostuei dagokienez: erantzukizunpeko adierazpena eta/edo sinatutako ordutegi-partearak, pertsona bakoitzak proiektuari eskainitako orduak identifikatuz. Haietako bakoitzaren kostu unitarioa behar bezala egiaztatzea, baita kostu unitario horren kalkulua ere, sortutako guztizkoa eta Gizarte Segurantzak enpresarentzat duen kostua ikusi ahal izateko. Adierazitako eta justifikatutako kostu unitarioa ezin izango da orduko 70,00 eurotik gorakoa izan.

Diruz laguntzeko aurkeztutako inbertsioen fakturak euroa ez den beste moneta batean badaude, interesdunak zenbatekoa eurotan adierazi beharko du, faktura egin zen egunean Europako Banku Zentralak adierazitako kanbio-tasaren arabera.

Dokumentazio hori aurkezteko epea 2026ko irailaren 15ean amaituko da, egun hori barne.

Justifikazio-kontu arruntaren bidez egingo da justifikazioa, non, gutxienez eta oro har, Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentuak jasoko baitira. Horretarako, justifikazio-kontu arruntaren eranskina bete beharko da (ikus eranskinak).

Behin justifikatzeko epea bukatu egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, portzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, kobratzeko eskubidea galtzeari dagokionez.

20. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara behar bezala bideratzen direla bermatzeko, beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek. Horretaz gain, Udaleko Kontu Hartzailatza Nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

21. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea eta horretarako prozedura

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren II. kapituluaren eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzulketa-prozedurari, kausei, preskripzioari eta itzultzeko betebeharra dutenei dagokienez.

22. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Pertsona horiek, zeinek bere datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo aurkatu nahi izanez gero, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko dute.

23. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 14/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakarta printzipioak: Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 4an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ*

Eranskinak

Eskabide-orria	Anexo I: https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/50/66/105066.pdf
Inbertsio-aula	Anexo II: https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/50/67/105067.pdf
Enpresan proiektuari egotzitako langileen kostuen taula (aurkeztu karbono-aztarnaren 3. irismeneko kalkularen kasuan)	Anexo III: https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/50/68/105068.pdf
Justifikazioko kontu arrunta	Anexo IV: https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/69/41/96941.pdf